

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Plan berezia aldaketa puntual bat egiteko udal planeamenduko arau subsidiarioen 272. artikuluan –estalkiak eta profilak-. Behin betiko onarpena. Espedientea 17070D108

Udalbatzaren 2018ko urtarrilaren 25ko erabakiaren bidez, behin betiko onarpena eman zion Jon Arrate Jauregik sustatako plan bereziari, Amurrioko udal planeamenduko arau subsidiarioen 272. artikuluan aldaketa puntuala egiteko, estalkiei eta profilei dagokienez.

Arabako Foru Aldundiko Hirigintza Planeamenduaren Administrazio Erregistroan gordailutu beharrekoa gordailutu eta gero, hala xedatzen baitu Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak bere 89.3 artikuluan, argitara ematen da ALHAOn, onartutako hirigintzari buruzko araudiarekin batera.

Plan bereziaren espediente hori behin betiko onartzeari buruzko ebazpenak administrazio bidea amaitzen du eta haren aurka interesdunek Administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez

dezakete bi (2) hilabeteko epean, egintza jakinarazi zein argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan (Barroeta Aldamar kalea, 10- 2. solairua, Bilbo).

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2018ko otsailaren 14a

Alkatea

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA

Onartutako erredakzioa:

272. artikulua. Estalkiak, profilak

a) Hiri Lurzoruan eraiki berri diren eraikin kolektibo guztietarako, honako ezaugarri hauek dituen estalki profil bat ezarri da: Eraikinak 80 eta 120 cm arteko teilatu-hegala izango du azken forjatuaren luzapen gisa. Haren ertzeko goiko lerrotik aterako da estalki inklinatua, gutxienez % 30eko eta gehienez ehuneko 40ko malda duena, estalitako obraren isurkira iritsi arte, teilatuaren gailurrean. Amaiera teila zeramikoaren bidez egingo da, kolore naturalean. Azken forjatuaren gainean, igogailuentzako makineria gordetzeko etxolak eta eraikinetako laguntza-elementuak eta instalazioak jasotzeko moduko eraikinak baino ezingo dira eraiki. Horiek guztiak kontrajarritako bi fatxaden teilatu-hegalen ertzetatik ateratzen diren 45 graduko plano inklinatuak definitzen dituzten inguratzailean inskribatuta egongo dira. Inguratzaile horren kanpoan, antenak, tximistorratzak eta egoera hori behar duten beste elementu batzuk (fabrikakoak ez direnak) baino ezingo dira jarri.

b) Amurrioko hiriguneko Hiri Lurzoruan eraikitzen diren familia bakarreko edo bi familiako egoitza-eraikin isolatu zein atxiki guztietarako, ezaugarri hauek dituen estalki profil bat ezarri da: Estalkiaren malda ehuneko 30 eta ehuneko 40 artekoa izango da. Estalki lauak jarri daitezke, baldin eta lorategia badute eta paisaia- edo ingurumen-irizpideek justifikatzen badute.

Estalkiaren materiala teila arabiar zeramikoa (kolore naturalean) eta arbela izango dira. Ezingo dira jarri estalkiaren isurkien planoak oztopatzen dituzten terrazak edo atzeraemanguneak. Eraikinek gutxienez 90 cm-ko irteera duten teilatu-hegalak izango dituzte.